

9.KOSTUAK

Proiektua martxan jartzeko, zigarro-muturrak jasotzeko ontziak diseinatu behar ditugu, erostea baino merkeagoa delako. Hasieran **Durangon** hasi nahi dugu, eta 20 ontzi jartzea pentsatzen dugu parkeetan eta geltoki nagusietan. Ontzi bakoitza 15–20 euro ingurukoa izango da, beraz guztira **300–400 euro** inguru.

Jasoketa eta garbiketa-lanak egiteko zerbitzua kontratatuko da, hilean **150 euro** inguruko kostuarekin. Aurreikusten dugu astean 5–10 kg muturren jasoko ditugula, hilero 20–40 kg inguru.

Muturrak birziklatzen direnean, papera pertsonalizatu eta paketatuko dugu, hilero 50–70 euroko kostua izango duena, eta 10–15 kg papera sortuko da. Banaketa Durangon barruan egingo da, garraio-kostu 60 euro ingurukoa, eta publizitateak sare sozialetan 80–100 euroko gastua suposatuko du.

Guztira, proiektuaren hasierako kostuak **650–800 euro** ingurukoak izango lirateke, eta pixkanaka berreskuratzea espero dugu papera saltzeagatik.

